

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

149/2017 Foru Agindua, maiatzaren 22koa, onartzen duena bete direla otsailaren 13ko 33/2017 Foru Aginduak ezarritako baldintzak. Foru Agindu horren bidez, behin betiko onartu zen espedientea, Iruña Okako arau subsidiarioetan 6. aldaketa puntuala egiteko, 1-55 lurzatia (FIASA) arautzen duten ordenantzetan mugekiko gorde beharreko tartea zehazten duten parametroetako bat aldatzeari dagokiona

AURREKARIAK

Lehenengoa. - Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatuaren otsailaren 13ko 33/2017ko Foru Aginduaren bidez, behin betiko onartu zen espedientea, zenbait baldintzarekin, Iruña Okako arau subsidiarioetan 6. aldaketa puntuala egiteko, 1-55 (FIASA) lurzatia arautzen duten ordenantzetan mugekiko gorde behar den tartea zehazten duten parametroetako bat aldatzeari dagokiona.

Bigarrena. - 33/2017 Foru Agindu horrek berak, adierazitako baldintzak funtsezkoak ez zirela iritzita, ezarri zuen, haiek zuzendu eta gero, espedientea foru aldundira igorri beharko zela, jendaurrean jartzeko izapidetik berriro pasatu gabe, haren betearazte indarra adierazteko, izapideak egiteko eta argitara emateko.

Hirugarrena. Espedientearen testu bateratuak 2017ko martxoaren 29an izan zuen sarrera aldundiaren erregistroan.

OINARRIAK

Aurkeztutako dokumentuak aztertuta, egiaztatu da aipatutako foru aginduan ezarritako baldintzak bete dituela.

Horregatik, dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Betetzat jotzea Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatuaren otsailaren 13ko 33/2017ko Foru Aginduan ezarritako baldintzak. Foru Agindu horren bidez, behin betiko onartu zen espedientea, Iruña Okako arau subsidiarioetan 6. aldaketa puntuala egiteko, Langraiz Okako 1-55 (FIASA) lurzatia arautzen duten ordenantzetan mugekiko gorde behar den tartea zehazten duten parametroetako bat aldatzeari dagokiona.

Bigarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratu dadila agintzea.

Hirugarrena. Ebazpen honek administrazio bidea amaitzen du eta beronen aurka, zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko maiatzaren 22a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua
JOSEAN GALERA CARRILLO

**IRUÑA OKAKO UDALERRIKO ARAU SUBSIDIARIOEN 187.18– 4). b)
ARTIKULUAREN IDAZKETA BERRIA****Industriako hiri lurzorua**

187.18 – Industria eraikuntza finkatuko gune puntualak.

4) Industria gune puntual sakabanatuak

b) 1. poligonoa, 55 lurzatia (FIASA)

4. Eraikuntza baldintzak:

– Eraikuntza lurzatian kokatzeko parametroak (lehen, Eraikuntzaren lerroakadurak):

Fatxada lerro gehienekoak honako atzeragune hauek eduki beharko ditu lurzatiaren mugetik:

– Lurzati bereko eraikin exentuen arteko tartea, salbu eta behar diren agirien bidez justifikatutako arrazoi teknikoak badaude – 6 metro.

– Sotoko solairuan ezingo da gainditu eraikuntza lerroa, inolaz ere ez.

– Mugetarako atzeraguneak, eraikuntza berriko eraikinetan ordezkatzeko edo zabaltzeko ekintzak egitean – 5 metro.

Subillabide sektorearen amaierarekin bat datorren mugan eraikina atxiki ahal izango zaio muga horri, betiere aldeak ados badaude, eta bieie aukera bera baimenduko zaie. Baldin eraikuntza enpresa proiektu bakarrari badagokio, eta bi lurzatiak jabe bakarrarenak badira, bien arteko mugaren gainean jarri ahal izango da, lurzatiak multzokatu eta gero.

– Mugetarako atzeraguneak, lehendik dauden eraikinetan eraberritze edo finkatzeko ekintzak egitean – daudenak.

– A-1 autobidearen kanpoaldeko ertzeko atzeragunea – 50 metro, non eta araudi sektorialak ezartzen dituen tartea ez diren handiagoak, zeren, kasu horretan, horiek aplikatuko baitira.

– Atzeragunea, Zadorra ibaiaren ertzetik – 30 metro, non eta araudi sektorialak ezartzen dituen tartea ez diren handiagoak, zeren, kasu horretan, horiek aplikatuko baitira.

– Atzeragunea, Santa Engracia errekatik – 15 metro, non eta araudi sektorialak ezartzen dituen tartea ez diren handiagoak, zeren, kasu horretan, horiek aplikatuko baitira.

– Aeronautikako zortasunak: Nola azterlanaren eremu osoa zortasun aeronautikoek erasandako zona eta espazioetan dagoen, edozein eraikuntza lan egiteko, edozer instalatzeko (zutoinak, antenak, aerosorgailuak –palak barne–, eraikuntza lanetarako behar diren baliabideak –eraikuntza garabiak eta antzekoak barne–), eta edozer landatzeko, lehenengo Aire Segurtasuneko Estatuko Agentziak (AESAs) aldeko erabakia eman behar du, 297/2013 Errege Dekretuak aldatutako 584/1972 Errege Dekretuaren 30 eta 31. artikuluekin bat etorriz.